



EBAZPENA, 2021EKO MAIATZAREN SEKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. EBAZPEN HONEN XEDEA DA, LANBIDE HEZIKETAKO SORMEN APLIKATUKO EUSKAL INSTITUTUA (IDEATK), LANPOSTU BATEN DEIALDIA EGITEA, 2021/2022 IKASTURTEAN ZEHAR LANPOSTUA BETETZEKO.

Deialdi honen xedea da Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK) lanpostu bat betetzea da 2021/2022 ikasturterako, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak proposatuta.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. Honako hauetan arautzen da: uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 54. artikuluan (6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) eta uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuko 12. artikuluan (185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan baldintzak onartzen dituen hitzarmena onartzen duena).

Lan-kontratua duten langileei dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 83. artikuluan ezartzen duenez, lan-kontratudun langileak lekuz mugitu eta lanpostuak betetzerakoan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa izango da oinarri, eta, horrelakorik ezean, karrerako funtzionarioak lekuz mugitzeko eta lanpostuak betetzeko sistema hartuko da aintzakotzat.

Horregatik, egokitzat jotzen da lan-kontratudun langileek lanpostuak betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea behin-behineko esleipenaren figuraz, zeina zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa baita.

Horren arabera, betiere Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da: Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK) lanpostu hauek betetzea, 2021/2022 ikasturterako.

- Sormenezko Pentsaeraren eta Sormen Aplikatuaren zuzendaria

- a) Funtzionarioen kasuan, zerbitzu-eginkizunean beteko dira lanpostuak.
- b) Lan-kontratudun langileen kasuan, behin-behineko esleipenaz beteko dira.

Bigarrena.- Eskakizunak, bazterketak eta uko egiteak.

- a) Karrerako funtzionarioa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, dagokion kidegoan, eskatutako lanpostuaren arabera.
- b) Aipatutako mailetako lan-kontratu finkoa duten irakasleek ere parte hartu ahal izango dute.
- c) Orobat parte hartu ahal izango dute praktiketako eta bitarteko funtzionarioek, baina lehentasuna izango dute karrerako funtzionarioek nahiz lan-kontratu finkoa duten langileek.
- d) Eskaera aurkezten denean, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publiko batean zerbitzu aktiboko egoeran, edo postuaren erreserba dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun gabetzea izan ezik.



- e) Era berean, parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez zerbitzu aktibora itzuliz, zerbitzu berezietakoek eta borondatezko eszedentzia egoeran daudenek, beti ere egoera horretan egoteko gutxieneko epea bete baldin badute.
- f) Ebazpen hau argitaratu den egunera bitarte, deialdi honetan deitutakoez, 2021/2022 ikasturterako, bestelako lanpostu baterako izendatua ez izana zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenaz.
- g) Lanpostu bakoitzeko betekizunak Lanpostu-zerendan ezartzen dira, 168/2015 Dekretuaren arabera (168/2015 Dekretua, irailaren 8koa, Lanbide Heziketako Sormen Aplikatutako Euskal Institutua (IDEATK) sortzen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena; EHAA, 2015/09/28).
- h) Deialdi honetatik kanpo geratzen dira 2021/2022 ikasturterako IRALE programarako liberatuta egongo direnak.
- i) Aurreko ikasturteetan esleitutako zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena 2021/2022 ikasturterako luzatzeari uko egin dioten pertsonak, ezingo dute ukoaren xede den lanpostua aukeratu.
- j) Behin zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena esleituta, ezingo zaio hari uko egin, deialdi honen xede den ikasturtea bukatu arte.
- k) Deialdi honetako gainerako baldintzak I. Eranskinean zehaztuta daude.

Hirugarrena.- Eskabideak formalizatu eta aurkezteko epeak.

- a) Eskabide formalizazioa.

Hautagaiak IRAKASLEGUNEA atariaren bidez (<https://irakaslegunea.euskadi.eus>) aurkeztu beharko dute eskabidea, "Zerbitzu-eginkizunak: IDEATK" bannerretik, eta beharrezkoa izango da eskatzailea alde aurretik identifikatzea (NAN/AIZ + pasahitza, edo XLNets erabiltzailea, halakorik badago).

- b) Epea

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 12an bukatuko da, egun hori barne.

- a) Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideak ondokoarekin batera aurkeztu beharko dira:

- **Eskatutako betekizun espezifikoak:** Haiek egiaztatzeko dokumentazioa (kopia konpultsatua).

Administrazioaren eskura ez daudenak alegatu egin beharko dira, eta esandako ziurtagiri bidez aurkeztu.

- **Adierazitako merezimenduak:** Egiaztagiri ofizialak (originalak edo kopia konpultsatuak).

Administrazioaren eskura daudenak alegatu egin beharko dira, eta gainerakoak esandako ziurtagiri bidez aurkeztu.

Ez dira baloratuko eskabidearekin batera alegatu ez diren merezimenduak eta memoriak, ez eta bertan agertu arren behar bezala egiaztatu ez direnak ere.

- **Memoria:** Hautagaiak bete beharreko funtzioei eta lanari buruzko memoria bat aurkeztu beharko dute. Memorian bertan ezingo dira hautagaiaren izen-abizenak idatzi, ezta haren beste identifikazio-daturik ere. III. eranskinaren formatua erabili beharko da (gehienez 3 orri alde batetik, tarte bikoitzarekin eta 12 letarren tamainarekin).

**Laugarrena.- Balorazio-baremoa.**

- a) Izangaien merezimenduak, eta memoria, II. Eranskinean ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntuatuko dira. Ebazpen hau argitaratzeko datara bitarte gauzatu eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak soilik izango dira baloragarriak.
- b) Horrez gain, memorian lor daiteken puntuazioaren %50 gutxienez lortzen ez dituztenak prozesutik kanpo geratuko dira.
- c) Puntuazioen guztizkoan berdinketarik izanez gero, baremoaren atal bakoitzean gehieneko puntuazioari erreparatuko zaio, baremoan ezarritako hurrenkerari jarraituz.

Bosgarrena.- Balorazio-prozesuaren faseak:

- a) Izangaiek, haiek bete nahi dituzten lanpostuetan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela egiaztatzea: Egiaztapen hau Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak burutuko du.
- b) Memorien balorazioa: Memoriak baloratzeko balorazio batzorde tekniko bat eratuko da, eta ondokoek osatuko dute: IDEATKako zuzendari exekutiboa edo eskuordetutako pertsona, eta bi teknikari: bata Planifikazio eta Antolaketa Zuzendaritzakoa eta bestea, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzakoa.
- c) Adituak diren aholkulari teknikoak izan ahalko ditu balorazio batzorde teknikoak memoriak baloratzeko aipatutako batzordeak zehaztutako irizpideen arabera. Aholkulariok beren espezialitate teknikoak lantzerantz mugatuko dira, eta arlo horiei dagokienean soilik lan egingo dute batzorde teknikoarekin.
- d) Merezimenduen balorazioa: Hezkuntza Saileko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren dagozkien zerbitzuek egingo dute balorazio hori.
- e) Ondoren, fase guztien balorazioak Balorazio batzorde orokorraren esku jarriko dira.

Seigarrena.- Balorazio Batzordea.

- a) Balorazio Batzordea sortuko da eta hauek izango dira kideak:
 - Lehendakaria:
 - Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona.
 - Batzordekideak:
 - IDEATKako zuzendari exekutiboa edo hark eskuordetutako pertsona.
 - Planifikazio eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikari bat.
 - Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako teknikari bat.
 - Idazkaria:
 - Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, hitzarekin baina botorik gabe.
- b) Era berean, sektorean ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat izan ahalko da Balorazio Batzordean, hitzarekin baina botorik gabe.



- c) Deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta dagokion epean eta moduan aurkeztu diren eskariak balorazio batzordeak baloratuko ditu.

Zazpigarrena.- Ebazpena.

- a) Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.

Balorazio-prozesua egin ondoren, Balorazio Batzorde Orokorraren Lehendakariak, Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dio deialdi honen ebazpenaren proposamena, azken honek deialdiaren Behin-behineko Ebazpena eman dezan. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangai bakoitzari emandako puntuazio osoak eta atalkakoak ere azalduko dira.

Behin-behineko Ebazpena Hezkuntzako webgunean argitaratuko da:
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>

Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

- b) Behin betiko ebazpena.

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren edo erreklamaziorik ez balego, Langileak Kudeatzeko zuzendariak jakitera emango du aukeratutako hautagaien behin betiko ebazpena. Bertan, hautagai bakoitzari emandako balorazioak azalduko dira, hautatutako eta baztertutako pertsonen azken zerrenda emango da, eta hutsik gera zitezkeen lanpostuak ere azalduko dira. Hautagaien lanpostuetan eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte —barnean hartuta balorazio-baremoan eskatutako gutxieneko puntuazioa—, deitutako lanpostuak ezingo dira hutsik geratu.

Behin-betiko Ebazpena Hezkuntzako webgunean argitaratuko da:
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>

Behin betiko Ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Zortzigarrena.- Izendapena eta luzapenak.

- a) Aukeratutako izangaiari 2021/2022 ikasturtearen amaierara arte emango zaio lanpostua, betiere ikasturtean zehar titularra berrira lanean hasten ez bada.
- b) Zerbitzu-eginkizuna ematea eraginik gabe geratuko da lanpostu hutsik ez badago hura benetan gauzatzeko, lekualdatze-lehiaketan edo lanpostuari dagokion hornitzeko moduan erregelamenduz betetzearen ondorioz. Eraginik gabe geratuko da, halaber, lanpostuaren titularra lanera itzultzen bada edo araz betetzen bada.
- c) Zerbitzu-eginkizunen esleipena edo behin-behineko esleipenak jaso dituztenek galdu egingo dituzte horiek, praktiketako funtzionario izendatzen badituzte eta ezin badute praktikak bete deialdi honen arabera esleitutako lanpostuan.
- d) Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboan egon beharrean beste administrazio-egoera batean egonez gero, zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena eskuratzeko lanera itzuli beharko du berehala, eta aldi berean esleituko zaio zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena. Ez badu hala egiten, eskubidea galduko du, eta hurrengo puntuazio handiena duen pertsona hautatuko da.
- e) Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie lanpostu horiek 2021/2022 ikasturtearen amaierara arte betetzeko.
- f) Praktiketako funtzionarioei dagokienez, zerbitzu-eginkizun bat emateko, karrerako funtzionario izan beharko dute 2021/2022 ikasturtean.



- g) Lan-kontratadun langileen kasuan, lanpostu horiek betetzeko behin-behineko esleipenaren ebazpena emango da, 2021/2022 ikasturtearen amaierara arte.
- h) Halaber, ordezkapenatarako hautagaien zerrendetan izena emanda dauden langileak edo bitarteko langileak aukeratuz gero, lanpostu horretan izendatuko dira 2021/2022 ikasturtearen amaierara arte.
- i) Aldi hori igaro ondoren, Hezkuntza Administrazioak egindako ebaluazioa positiboa bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendapena luzatu ahal izango du hurrengo ikasturteatarako, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz eta merezimendu-lehiaketaren bidez betetzen ez badira.

Bederatzigarrena.- Ordezkoen zerrenda.

- a) Gutxieneko puntuazioa atera arren lanposturik lortu ez dutenak berariazko poltsa batean sartuko dira, puntuazioaren arabera zerrenda batean. Poltsa horren helburua hau izango da: ebazpena eman ondoren hutsik gera litezkeen alor horretako lanpostuak betetzea.
- b) Aldi baterako ordezkapenatarako Hezkuntza sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak 19. artikuluan dioena hartuko da kontuan. Agindu horrek arautzen du EAEko unibertsitateaz aparteko herri-ikastetxeetako irakaspostuen aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda nola kudeatu.

Hamargarrena.- Ordainsariak.

Aukeratutako pertsonak zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenean betetako lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte, dagokion Dekretuaren ezarritakoaren arabera (168/2015 Dekretua, irailaren 8koa, Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK) sortzen eta Institutuko lanpostuen zerrenda onartzen duena; 2015/09/28ko EHAA – 184ko zk. duena).

Hamaikagarrena.- Lan-baldintzak.

- a) Hautatutakoek destinoko zentroan ezarritako ordutegia eta egutegia bete beharko dute. Pertsona hauei aplikatuko zaie Hezkuntza Saileko irakasleen lan-baldintzen gaineko indarrean dagoen araudia.
- b) Hautatutakoek ezin izango dute parte hartu ordu-liberazioa behar duten euskalduntzeko ikastaro luzeetan. Halaber, ordu-liberazioa suposatzen duten bestelako ikastaroetan, parte hartu ahal izateko, Lanbide Heziketako sailburuordetzaren berariazko baimena beharko da.

Hamabigarrena.- Datu pertsonalen babesa.

- a) Jasotako datuak ondoko legeetan xedatutakoaren arabera erabiliko ditu Hezkuntza Sailak: Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.
- b) Eskatzaileak ados daude beren datu pertsonalak deialdi honetan ezarritako xederako eta bertan aipatzen den bezala erabiltzearekin, bai eta Hezkuntza Saileko webgunean (www.hezkuntza.ejgy.euskadi.eus) eta Hezkuntza Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratzearekin ere, baina deialdiaren berezko izapideetarako soilik.
- c) Datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio:
 - o Langileen kudeaketa.
 - o Arduraduna: langileen Kudeaketako Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
 - o Helburua: irakasleen eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.



- Legitimazioa:
 - Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko beharrezko tratamendua.
 - Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.
 - 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa.
 - 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- Hartzaileak:
 - Estatuko Administrazioeko beste organo batzuk.
 - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
- Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarriari jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-se-d/es/transparencia/048100-capa2-es.shtml
- Araudia:
 - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([https://eur-lex.europa.eu/legal-content/es/TXT/HTML/?Uri=CELEX:32016R0679 & from = es](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/es/TXT/HTML/?Uri=CELEX:32016R0679&from=es)).
 - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren Sekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa ([www.boe.es/buscar/doc.php? Id = BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?Id=BOE-A-2018-16673)).

Hamahirugarrena.- Ordezko modura aplikatzeko araudia.

Prozedura gaitan ebazpen honetan arautu gabeko kasuetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

ERREKURTSOAK

Bide Administratiboa bukatzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, beti ere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 legearen 121. artikuluan eta hurrengoek 112.1 artikulua erekin xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 5ean

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAKIN DEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



I. ERANSKINA

BALDINTZAK

- **Sormenezko Pentsaeraren eta Sormen Aplikatuaren zuzendari lanposturako baldintza teknikoak**
 1. **Euskara:** Hezkuntzako HE2 geroratua edo Europako erreferentzia-esparruaren arabera baliokidea den beste tituluren bat.
 2. **Ingelesa:** B1 edo Europako erreferentzia-esparruaren arabeko beste titulu baliokide bat.
 3. **Titulazioa:** Goi-mailakoa edo ertaina.
 4. **Esperientzia:** Lantaldeak koordinatzen 3 urteko esperientzia.



II. ERANSKINA

BAREMATZEKO IRIZPIDEAK

1. Eskatutako lanpostuaren arloari lotutako esperientzia: gehienez ere 6 puntu.

Hilabete bakoitzeko 0,10 puntu.

Izendapenaren edo kontratuaren edo uztearen fotokopia konpultsatuen bidez, edo esperientzia hori izan den lantokiko arduradunak emandako ziurtagiriaren bidez, egiaztatuko da.

2. Irakaskuntza-antzinatasuna: gehienez ere, 3 puntu.

- a) EAeko, Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu.

Antzinatasuna frogatuko da izendapen edo kontratuaren eta kargu-uztearen fotokopia konpultsatuz, edo zerbitzu-orriaz. Europar Batasuneko estatu kideen ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak frogatzeko beharrezkoa izango da, gainera, zentroa publikoa dela eta emandako irakasgaiak arautuak direla ziurtatuko duen hezkuntza-administrazioaren dokumentu bat —zinpeko itzulpenaz— aurkeztea.

- b) Administrazioaren baimena duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxe pribatuetan eta aurreko a) puntuan adierazitakoez bestelako erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,033 puntu.

Antzinatasuna frogatuko da zentroaren zuzendaritzak emandako ziurtagiri baten bidez, non zerbitzuen iraupena jasoko den, eta ikuskaritzaren oniritziak, edo, bestela, kontratuaren fotokopia konpultsatuz eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiriak, non zentroaren izena eta altako aldiak agertuko diren.

3. Jasotako prestakuntza: gehienez ere puntu 1.

Erakunde ofizialek emandako ziurtagiriak eta Hezkuntza Sailak homologatuak (emandako orduen kopurua adieraziko dutena) baloratuko dira, eskatzen diren lanpostuarekin edo funtzioekin zerikusia baldin badute.

10 orduetik 30 orduetara arteko ikastaro bakoitzeko: 0.20 puntu

31 orduetik 50 orduetara arteko ikastaro bakoitzeko: 0.40 puntu

51 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko: 0.60 puntu

4. Memoria: gehienez ere 5 puntu.

Lehiatzaileek memoria bat idatzi beharko dute, gehienez ere 3 foliokoa, alde batetik, tarte bikoitza, Times New roman letra-tipoa eta 12ko letra- tamainarekin. Bete beharreko eginkizunei eta lanari buruzkoa.

Memoriaren edukia II. Eranskinean ezarrita dago.

Memoria baloratzeko, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

1. Alderdi formalak.

2. Edukia lanpostuaren eginkizunetara nola egokitzen den eta garapen orokorra.



3. Erabilitako informazio-iturri anitzak.
4. Argitasuna eta konkretzioa erabilitako oinarriko kontzeptuetan.

5. Hizkuntzak (euskara eta gaztelania izan ezik): gehienez ere 2 puntu

- C2 titulua: puntu 1 hizkuntzako.
- C1 titulua: 0,75 puntu hizkuntzako.
- B2 titulua: 0,50 puntu hizkuntzako.

Hurrengo titulu edo ziurtagiriaren fotokopia konpultsatuaren bidez egiaztatuko da:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko edo bestelako Erkidegoetako Hizkuntza Eskolek emandako tituluak edo ziurtagiriak.
- b) maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskinean zehaztutako tituluak edo ziurtagiriak (EHAA, 2012ko maiatzaren 29)

6. Hitzaldiengatik eta emandako ikastaroengatik: gehienez ere 2 puntu.

Ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatuak (emandako orduen kopurua adieraziko dutenak) baloratuko dira, eskatzen diren lanpostuarekin edo funtzioekin zerikusia badute.

- Emandako 10 orduko, egiaztatuak: 0,20 puntu
- Hitzaldi bakoitzeko: 0,20 puntu

7. Argitalpenak : gehienez ere puntu 2.

Lanpostuaren edukiari lotutako argitalpenak.

Autoretzarengatik, 0.5 puntu

Koautoretzarengatik edo autoreen taldearengatik, 0.25 puntu

Azaroaren 2ko 2984/1972 dekretuak, abenduaren 12ko 2063/2008 errege dekretuaren bidez aldatuak, xedatutakoaren arabera ISBN, edo ISSN edo ISMN, derrigorrean adierazi behar duten arren ez duten argitalpenak ez dira baloratuko, ezta autorea eta editorea pertsona bera diren horiek ere.

**III. ERANSKINA****BETE BEHARREKO FUNTZIOEI ETA LANARI BURUZKO MEMORIA**

(GEHIENEZ ERE 3 FOLIOKOA, ALDE BATETIK TARTE BIKOITZAREKIN ETA 12 LETRAREN TAMAINAREKIN)

- **KARATULA** (orri bat, ez dena orrien zenbaketan sartzen). Karatula da Memoriako leku bakarra hautagaiaren datu pertsonalak jasotzeko:

EGILEA:

MEMORIA ARI DEN LANPOSTUA:

- **MEMORIA:**

1. Sarrera.
2. Aurrekariak eta esperientzia lanpostuaren eremuan.
3. Helburuak eta funtsezko jarduera-ildoak.
4. Lanpostuaren gaitasun espezifikoak eta teknikoak garatzea.
5. Metodologia eta lan-plana.
6. Erreferentzia teorikoak eta bibliografia



IV. ERANSKINA

LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK

- Sormenezko Pentsaeraren eta Sormen Aplikatuaren zuzendari lanposturako baldintza teknikoak

Funtzioak:

- a) Lanbide Heziketan sormenezko pentsaera garatzeko esparrua zehaztea.
- b) Ataleko prestakuntza-planak diseinatzea, kudeatzea eta koordinatzea, albo-pentsamendua eta pentsamendu eraikitzailea garatzeko, baita adimen emozionala eta adimen exekutiboa ere.
- c) Atalean sortzen den dokumentazioa gordetzea eta zaintzea.
- d) Antolakundearen proiektu eta jardueren esparruan beste atal eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzea.
- e) Bere eskumeneko baliabide eta guneak kudeatzea.
- f) Bere helburuak lortzeko erabil ditzakeen giza baliabideak eta baliabide teknikoak administratzea eta kudeatzea.
- g) Ataleko urteko planari buruzko nahitaezko txostenak egitea eta Institutuko zuzendari exekutiboak eskatzen dizkion nahitaezko gainerako txostenak egitea.
- h) Atalaren jardunari buruzko urteko txostena egitea.

